



Soilik taldearen bizitzak badu alter ego txiki bat. Soilik taldeak arnasa hartzeko balio izan dio Soilik bultzatu eta jaiorazi zuten kideei. Mutur-muturreko metalaren indar-

arak eta abiadurak moteltzeko gogoia ematen duenean, Soilik bezalako proposamenetara iristea ez da horren zaila. Conflict Noise taldekideetako zenbait partaidek ematen dio hasiera Soilik taldeari 2002an, baina oraindik izenik gabe. Jabi, Jon eta Ortzi (Conflict Noise taldeko bateria, baxua eta gitarra) Soilik izango zenaren arimaren bila hasi ziren lokalean elkartzean, Bilbon. Ideiak sortzen hasi musika desberdin bat egiteko asmoz; beti jorratu izan duten death metalari alternatiba bat emate aldera. Helburu finkorik gabe, abestiak egitea dute xede nagusia. Musikalitatea Anathema, Katatonia, Paradise Lost... eta antzeko taldeen inguruan dabil. Abestiak egiten eta desegiten urteak eman ondoren, Soilik taldearen estilo propioa landu eta gero, abeslariak emakumea izan behar duela erabakitzen dute. 2004ko bukaeran Miriam taldekide berria izatera pasatuko da (aurretik The Howl eta Mad Mon Kis taldeetan ibilia). Miriam abeslaria etortzearekin agertuko da Soilik izena, ordu-ra arte arima zenak gorputza hartuta. 2007ko neguan Aulestiko Altxatune estudioan grabatuko dute "Ilun", Txortx eta Iñigo Etxebarrieta teknikariek.

Soilik taldearen diskoak "Ilun" du izenburua. Ez du ematen, ordea, estreinako lanaren aurrean dagoenik Soilik taldea. Denbora izan dute egin behar zuten musika mamitzeko, baina ez zaio inolako pitzadurarik ikusten, ezta hasiberrien zalantzarik ere. Soilik taldearen metal zipriztinak agerian dira kantuetan zehar. Soilik taldearen rock indartsuaren kolpeak entzungarri dira lanean. Soilik taldearen melodikotasuna poparen ukitutik datorkio. Soilik taldeak kantuak egiteko erabiltzen dituen musika-garapen luzeak aipatu ditugun musika estilo horien guztien nahasketa xelebrea da. Soilik taldeak indarrez abesten dio malenkoniari. Soilik taldeak tristeziari rock musika pisutsua eransten dio. Xuxurlatzeak ez dakar hauskortasunik. Hauskortasunetik ihesi, musika sendoan ditu oinarriak eta astia du, tarteka, abestiak xuxurlatzeko, sakontasunez eta potentziaz. Soilik taldeak porlanezko habian errun ditu abestiak banan-banan, indarraren sastadak leun bezain gogor.

Soilik "ilun" izena eman dio bere lanari, eta hor bat egiten dute rockak, popak eta metalak atmosfera giroetan bilduta. Ahotsak elkartu egiten ditu, batetik, alde épikoak eta gotikoak, eta bes-tetik, auhen ukituak dituzten xuxurlak.

1.- Iluna, tristura, mugak, lurra, natura hitzek definitu nahi al dute zuen musika estiloa?

Esan daiteke hitzek definitzen dutela zer nolako musika egiten

dugun. Uste dugu egiten ditugun letrak bat etorri behar dutela sortzen dugun musika estiloarekin; hots, ukitu tristeak, malenkoniatsuak, mistikoak... Hitz horiek oso ongi datoz guk nahi dugun musika eta letrak, biak batera, ingurune berera iristeko.

2.- Ahots epiko-gotikoek tonu altuan dihardute gehienetan, eta bestetan xuxurlatzen.

Ez genituzke ahotsak gotikoak bezala definituko; sentitzen dutena esan nahi dute hitzek. Abesteko oso modu adierazkorra da eta letraren nondik-norakoaren baitan dago: bizi gogoak, emozioak, negarrak eta desirak adierazteko ahotsak tonu altuan erabiltzen ditugu; hausnarketa eta intriga-giroetan barneratzeko xuxurlak sartzen ditugu.

3.- Kantu luzeak egitearen aldekoak zarete. Musika pop-metalaren eta riff astunen nahasketa.

Ez dugu abesti luzeak egitearen aldeko aposturik egin, baina gustuko dugu abesti ongi landuak egitea, beren sarrerarekin, garapenarekin, lelo eta bukaerekin; ondorioz, abestiak minutuak hartuz doaz, baina, beti ere, abestiarekin bat etorrita eta bere ildotik irten gabe. Gure musika rock melodikoaren barruan sartuko genuke, nahiz eta jendearen belarrietara beste modu batera hel daitekeen, eta ez guk ulertzen dugun eran. Badira oso riff geldoak eta melodikoak batzuetan, baina badira riff pisutsu eta ilunak ere, eta horrek urrundu egiten gaitu pop musikaren estilotik. Riff desberdinen nahasketa horrek, ahotsekin batera, rock melodikoa jorratzen duen talde baten soinutik gertuago uzten gaitu.

ritxi aizpuru (2008ko maiatzaren 20a)

Mirian: ahotsa

Ortzi: gitarra

Jabi: bateria

Margo: baxua